

HUHEZIk Bikain ziurtagiria jaso du, urrezkoa, euskararen erabileragatik

2010/11/12

Joan den azaroaren 10ean, Donostian egindako ekitaldi batean, Kursaal jauregian, Eusko Jaurlaritzak Bikain ziurtagiria eman zion Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateari, urrezkoa, fakultateak bere eguneroko jardueran ziurtatzen duelako euskararen kalitatezko presentzia, erabilera eta kudeaketa. Nekane Arratibel dekanok jaso zuen ziurtagiria, **beste 43 enpresa eta erakundetako ordezkariekin batera.**

Banatu ziren ziurtagirien artean, **19 urrezkoak dira**, goi-mailakoak, eta tarteko mailari dagokion **zilarrezkoak beste 14**. Gainerako **11k oinarrizko maila** zirurtatzen dute. Lurreldeei dagokienez, ostera, enpresa horietatik 23 Bizkaikoak dira, 15 Gipuzkoak eta 6 Arabakoak. Kontuan izanda aurretik beste 30ek zutela ziurtagiria, gaur egun **74 enpresa eta erakundek dute Euskal Autonomia Erdiegoan Bikain ziurtagiria**, tartean, hedabideak, makina-erreminta arlokoak, administrazio publikoak, banaketa-enpresak, fundazioak eta elkarteak, osasun-laguntza ematen dutenak, finantza-erakundeak, eraikuntza arlokoak, aholkularitza-enpresak eta hezkuntza arlokoak.

